

## HERNANIKO UDALA

## Iragarkia

Osoko Bilkurak 2012-10-30ean egindako bileran «Hernaniko Udalerriko asteroko ferieren Araudia»ren aldaketari hasierako onarpena eman zion. Horren ondotik, jendarean ikusgai egon den bitartean, oharrik aurkeztu dira eta hauek onartuak izan dira.

Onespena behin betikoa da, eta buru ematen dio administrazio bideari. Ados ez dagoena, bi hilabete du errekurtsioa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Esandako epea iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arauzkotzeko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan agintzen duena betez, bestetik, aipatutako Araudia osoa argitara ematera goaz.

Hernani, 2012ko abenduaren 21a.—Luis Intxauspe Arozamena, alkatea. (11931)

## HERNANIKO UDALERRIKO ASTEROKO FERIAREN ARAUDIA

## I. IDAZPURUA

## Aplikazio-eremua

## 1. artikulua.

Araudi honen xedea eta ezarpen esparrua Hernaniko Asteroko Feria arautzea, antolatzea, zuzentzea eta kontrolatzea da.

## 2. artikulua.

1. Era guztietako produktuen salmenta baimentzen da, haiei aplikatu behar zaizkien arau espezifikoak betetzen badiuzte.

2. Halaber, kalez kale saltzea debekatuta edo mugatuta ez daukaten janariak nahiz agintarien iritziz osasunerako arriskurik ez dakartenak saltzea baimendu ahal izango da. Baimenen titularrek zehatz-mehatz bete beharko dituzte merkaturatzen dituzten produktuen erregelamendu tekniko-sanitarioak eta gainerrako araudi ezargarrira ere.

3. Ez da onartuko salmenta postu berean janari zehaztugabeak saltzea; espezifikoak izan behar dute.

## 3. artikulua.

Salmenta postuen kokapena, kopurua, salgaiak eta dagokion baimenaren titularra Zerbitzu Publikoetako delegatuaren dekretu bidez zehaztuko dira, batzordeak alde aurretik irizpena emanda.

## II. IDAZPURUA

## Azoka-gunearen antolaketa

## 4. artikulua.

Feria astean behin egingo da, ostegunetan. Alabaina, ostegun bat jai egun gertatuz gero, aste horretako azoka hurrengo egunera aldatuko litzateke. Aste Santua ezik. Orduan, asteazkenara aurreratuko da.

## AYUNTAMIENTO DE HERNANI

## Anuncio

Aprobado inicialmente, en sesión plenaria celebrada el día 30-10-2012, las modificaciones del «Reglamento de la feria semanal en la Villa de Hernani» y sometida a información pública, se han presentado alegaciones que han sido estimadas.

La aprobación es definitiva y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse *contra la misma*, recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao.

El plazo señalado se computará a partir del día siguiente al de la presente publicación.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, a continuación se procede a publicar el texto completo del citado Reglamento.

Hernani, a 21 de diciembre de 2012.—El alcalde, Luis Intxauspe Arozamena. (11931)

## REGLAMENTO DE LA FERIA SEMANAL EN LA VILLA DE HERNANI

## TITULO I

## Ambito de aplicación

## Artículo 1.

El objeto y ámbito de aplicación del presente Reglamento es la regulación, organización, dirección y control de la Feria Semanal de Hernani.

## Artículo 2.

1. Se autoriza, en principio, la venta de cualquier genero de productos, siempre que cumplieren las Reglamentaciones específicas aplicables a los mismos.

2. Podrá, asimismo, autorizarse la venta de aquellos productos alimenticios cuya venta en régimen ambulante no se encuentre prohibida o limitada por la normativa vigente o que a juicio de las autoridades competentes no conlleve riesgo sanitario. Las personas titulares de las autorizaciones deberán cumplir estrictamente las reglamentaciones técnico-sanitarias de los productos que comercialicen y el resto de la normativa que resulte de aplicación.

3. No se autorizará la venta de productos alimentarios indeterminados en un mismo puesto, debiendo ser estos específicos.

## Artículo 3.

Mediante decreto del Delegado de Servicios Públicos y previo dictamen de la Comisión se determinará la ubicación de puestos, el número de los mismos, los productos de venta y la persona titular de la autorización correspondiente.

## TITULO II

## Organización del recinto

## Artículo 4.

La Feria se celebrará los jueves, con una periodicidad semanal. Si el día establecido para la celebración de la feria coincidiese con festivo, ésta se trasladará al día siguiente. Excepto en Semana Santa, que se adelantará al miércoles.

**ORDUTEGIAK:**

- Salmenta postuak jartzeko: 08:00/09:00.
- Produktuak saltzeko: 09:00/19:30.
- Salmenta postuak kentzeko: 19:30/20:00.

Dena den, udalak, interes publikoko arrazoiak tarteko, feria-eguna beste egun batera aldatzeko eskubidea izango du, edo bertan behera uztekoa. Hala gertatuz gero, salmenta postuen esleipendunek ez dute kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Ferian saltzeko baimena duten pertsonen ezingo dituzte goian aipatutako ordutegiak gainditu, ez gainerik ez azpitik.

Partzelak mugatuta daudenean, esleipena ondoko irizpide hauei jarraituz egingo da:

- Senitartekoen transmisioa.
- Azokan daukaten antzinasunaren ordena.
- Saltzen diren produktuen ordena; bertako produktuak saltzen dituztenek lehentasun osoa izango dute.
- Hernanin bizitzearen ordena.
- Eskabidearen antzinasun egiaztatuaren ordena.

**5. artikulua.**

Feriarra salmenta postua jartzeko finkatua dagoen ordutegiaz kanpo etortzen den saltzaileak bere merkantziak eskuz eraman beharko ditu ibilgailutik salmenta postura. Ibilgailuak, deskargatu eta gero, azokako esparrutik kanpo utzi beharko dituzte, salmentarako mahai gisa moldatutakoak ez badira, behintzat.

**6. artikulua.**

Udalak, azokaren funtzionamendu eta kontrol egokia bermatzeko, eskalan egindako plano bat izango du, eta plano horretan postu guztien banaketa zenbakitua agertuko da. Zenbaki horiek bat etorriko dira emandako baimenetan eta txarretetan agertzen direnekin.

**7. artikulua.**

Feria amaitzen denean, okupatutako lekua guztiz garbi utzi behar da, paper, kutxa edo barazki eta fruta arrastorik gabe. Horretarako, hondakin mota bakoitza dagokion edukiontzian sartu beharko dute saltzaileek, honela sailkatuz:

1. Hondakin organikoak: Azokako esparruan horretarako espresuki jarrita egongo den edukiontzi marroian.
2. Papera, kartoia: Azokako esparruan horretarako espresuki jarrita egongo den edukiontzi urdinean.
3. Ontzi arinak: Azokako esparruan horretarako espresuki jarrita egongo den edukiontzi horian.
4. Beira: Urbieta kaleko bukaeran horretarako dauden edukiontzietan.

**8. artikulua.**

Salgai jarritako produktuen inguruko kartelak, oharrak euskaraz edo elebietan jarriko dira. Beharrezkoa den kasuetan, Udaleko Euskara Zerbitzuak laguntza emango du.

**9. artikulua.**

Egun batean postua jartzeko asmorik ez badago Udalari horren berri eman beharko zaio, behar bezala arrazoituta, azoka eguneko 10:00ak baino lehen. Abisurik ematen ez bada, titularak galdu egingo du ordainduta daukan tasa.

**HORARIO:**

- Montaje de los puestos: 08:00/09:00.
- Venta de los productos: 09:00/19:30.
- Retirada de los puestos: 19:30/20:00.

En todo caso, el Ayuntamiento se reserva el derecho de trasladar la fecha de celebración de dicha Feria, o incluso a su suspensión cuando el interés público así lo aconseje, sin que los/las adjudicatarios/as tengan derecho a indemnización alguna por dicho motivo.

Ninguna persona que disponga de la preceptiva autorización para desarrollar su actividad en la Feria, podrá sobrepasar en defecto o exceso los horarios citados.

Una vez delimitadas las parcelas, la adjudicación se realizará con arreglo a los siguientes criterios:

- Transmisiones familiares.
- Orden de antigüedad en la Feria.
- Orden del producto que se oferta, con prioridad absoluta para los vendedores de productos del País.
- Orden de residencia en Hernani.
- Orden de antigüedad acreditada de solicitud.

**Artículo 5.**

Todo/a vendedor/a que llegue a la Feria fuera del horario de montaje de los puestos, deberá transportar las mercancías a mano desde el vehículo al puesto. Los vehículos una vez descargados serán estacionados fuera del recinto ferial, excepto los vehículos que se encuentren acondicionados para la venta desde el propio vehículo.

**Artículo 6.**

El Ayuntamiento, para el buen funcionamiento y control de la Feria, dispondrá de un plano a escala, en el cual quedará reflejada la distribución numerada de todos los puestos, y cuya numeración coincidirá con las autorizaciones y carnés expedidos.

**Artículo 7.**

Una vez finalizada la Feria, la zona ocupada quedará perfectamente limpia, de papeles, cajas o restos de verduras y frutas. Al efecto deberán depositar los residuos fraccionados en los contenedores de la siguiente forma:

1. Restos orgánicos: Contenedor marrón instalado para tal fin en la zona de feria.
2. Papel, carton: Contenedor azul instalado para tal fin en la zona de feria.
3. Envases ligeros: Contenedor amarillo instalado para tal fin en la zona de feria.
4. Vidrio: En los contenedores ubicados para tal fin al final de la C/ Urbieta.

**Artículo 8.**

Todo cartel, nota referente a los productos puestos a la venta, se pondrán en euskara o en bilingüe. En los casos necesarios, el Servicio de Euskara del Ayuntamiento ofrecerá la ayuda necesaria.

**Artículo 9.**

«La no asistencia debidamente motivada deberá ser comunicada a éste Ayuntamiento antes de las 10 horas del día de la Feria. Caso de no cumplimentar lo antedicho, el titular perderá la tasa abonada».

*10. artikulua.*

Salmentak Udalak feria egiteko erabakitzen duen gunean egingo dira, Udalak espresuki finkatzen dituen lekuetan. Nola lekuak hala gunea bera aldatu ahal izango dira, momentuko beharren arabera, beti ere Udalak bere erabakia saltzaileei alde zuzena adierazita.

*11. artikulua.*

Hernaniko asteroko feria egiteko lekua Udalak finkatuko du; noizbait feria egiteko lekua aldatu beharra gerta daiteke, momentuko beharrek hala eskatzen badute.

*12. artikulua.*

Udalak seinaleak jarriko ditu salmenta postuak mugatze aldera, bakoitzari zenbaki bana emango die, eta metro kopuru bat, titularrek aldatu ezingo dituztenak.

*13. artikulua.*

Salgai guzti-guztiak, karga edo bolumen handia dutenak izan ezik, altura batean egon beharko dute ikusgai. Ezin dira, inola ere, lurraren gainean jarri.

*14. artikulua.*

Salmenta postuak behin udalak onartu eta gero joko dira finkotzat. Horretarako, zenbaki bat eta kokapen bat emango die.

*15. artikulua.*

Asteroko Feriaren antolaketa eta zuzendaritza batzordearen ardurapean egongo da. Batzordeak jasoko ditu feriarekin lotuta egindako erreklamazioak, eta haien inguruko ebazpen proposamenak egingo ditu araudi honetan jasotako printzipioen arabera.

## III. IDAZPURUA

## Salmenta

## I. KAPITULUA. Salmenta lanetan aritzeko bete beharreko baldintzak

*16. artikulua.*

Hernaniko herrian saltzen aritzeko honako hauek bete behar dira:

1. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako dagozkion epigrafeetan alta emanda egotea eta zerga ordainduta edukitzea.

2. Dagozkion Gizarte Segurantzako erregimenean alta emanda egotea eta kuota ordainduta eta egunean edukitzea.

3. Merkaturatutako produktu eta instalazioei buruzko erregelamendu espezifikoek ezarritako baldintza eta betebeharrak higieniko-sanitarioak edo bestelako mota edo izaerakoak betetzea.

4. Udal baimena izatea.

5. Dagozkion tasak ordaintzea.

6. Atzerritarren kasuan, egoitza eta lan baimenak lortuta dituztela egiaztatuko duen dokumentazioa edo bertan bizi eta lan egiteko baimena emango dien beste edozein dokumentazio izatea.

*Artículo 10.*

La venta se realizará dentro del espacio que el Ayuntamiento destine para la Feria y en el lugar que expresamente designe el Ayuntamiento, pudiendo ser modificados tanto el lugar como el espacio, según lo exijan las necesidades del momento, debiendo poner el Ayuntamiento, en conocimiento de los vendedores afectados, su decisión con antelación suficiente.

*Artículo 11.*

El lugar donde se ubique la Feria Semanal de Hernani, lo establecerá el Ayuntamiento, pudiendo cambiarlo en un futuro, trasladando la Feria, si las necesidades del momento lo aconsejaran.

*Artículo 12.*

El Ayuntamiento realizará las oportunas señalizaciones para la delimitación de los puestos, adjudicándoles una numeración que no podrá ser alterada por sus titulares, así como el metraje de los mismos.

*Artículo 13.*

Todas las mercancías sin distinción, excepto las de mucho peso y volumen, deberán estar expuestas al público en alto, no pudiendo, bajo ningún concepto, colocarse en el suelo.

*Artículo 14.*

Los puestos se considerarán como fijos una vez aceptados por el Ayuntamiento. A tal efecto, se les otorgará una numeración y se les señalará la ubicación.

*Artículo 15.*

La organización y dirección de la Feria Semanal estará encomendada a la Comisión, quien deberá atender las reclamaciones formuladas por cualquier persona en relación con la Feria, proponiendo la resolución de las mismas de acuerdo con los principios contenidos en el presente Reglamento.

## TITULO III

## Del ejercicio de la venta

## CAPÍTULO I. Requisitos para el ejercicio de la venta

*Artículo 16.*

Para el ejercicio de la venta en el término municipal de Hernani se requiere:

1. Estar dado de alta en los epígrafes correspondientes del impuesto sobre Actividades Económicas y encontrarse al corriente de su pago.

2. Estar dado de alta en el régimen de la Seguridad Social que corresponda y al corriente de pago de la cuota.

3. Cumplir los requisitos higiénico-sanitarios o de otra índole que establezcan las reglamentaciones específicas relativas a los productos comercializados y a las instalaciones.

4. Disponer de autorización municipal.

5. Satisfacer el pago de las tasas correspondientes.

6. En caso de personas extranjeras, documentación acreditativa de haber obtenido los correspondientes permisos de residencia y trabajo o cualquier otra documentación que le habilite para residir y trabajar.

## II. KAPITULUA. Udal baimenak

*17. artikulua.*

Baimen eskabideak Arloko delegatuari bidali beharko zaizkio.

Eskaerak urtero aurkeztuko dira, abenduaren 1a baino lehen. Baimenak urtebeterako izango dira: Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte. Denboraldiko produktuak saltzeko baimenduak izan ezik.

Eskaeran honako hauek adierazi behar dira:

- a) Eskatzailearen izen-abizenak.
- b) NAN edo AIZ eta IFZ zenbakia.
- c) Helbidea, biztanleen errolda agiria erantsita.
- d) Instalazioen eta salgaien deskribapen zehatza.
- e) Salgaiak kontuan hartuta, sortuko diren hiri hondakinekiko asimilagarriak diren hondakin atal desberdinak

Hauek dira hiri hondakinekiko asimilagarriak diren hondakinak: Papera eta kartoia, ontzi arinak, materia organikoa eta beira.

*18. artikulua.*

Aurreko artikuluan aipatzen den eskaerarekin batera, eskatzaileak dokumentu hauek aurkeztu behar ditu:

- a) Fotokopiak: NAN, AIZ eta norberaren kontura lan egiteko baimena eta atzerritarrek egoitza baimena edo beste dokumentazioen bat bertan bizi eta lan egiteko baimentzen diona.
- b) Gizarte Segurantzako alta eta kotizazioen azken ordainketaren erreziboa.
- c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako alta eta azken ordainketaren erreziboa.
- d) Elikagaien salmentaren kasuan, elikagaien manipulatzaile txartela eta osasun arloko teknikari eskumendunaren txosten idatzia, elikagai horiek, indarrean dagoen Erregelamendu Tekniko eta Sanitarioak betetzen dituztela-eta, saldaitezkeela adierazten duena.
- e) Jabearen edo titularraren izenean salmenta lanetan aritzeko baimendutako pertsonarik baldin badago, haien nortasuna egiaztatzeko agiriak.
- f) Erantzukizun zibileko aseguruaren erreziboaren fotokopia.

## III. KAPITULUA. Prozedura

*19. artikulua.*

1. Eskaera eta dokumentuak jaso ondoren, batzordeak dokumentazio hori aztertuko du eta, egin beharreko txostenak egin ondoren, hala badagokio, eskaera dagokion itxaron zerrendan sartuko du.

2. Salmenta postuak esleitzeko modua:

Lehena. Feria.

A) Urbieta kalean osteguneroko salmenta postu tradizionaletan esleitu beharreko postuen kopurua, kokapena eta sailkapena bat etorriko da delegatuak dekretu bidez egindako sailkapenarekin.

B) Sailkapen hori finkatu eta lizitazioan eskainitako postua esleitu ondoren itxaron zerrenda osatuko da. Itxaron zerrenda 2 urtetik behin berrituko da.

## CAPÍTULO II. Autorizaciones municipales

*Artículo 17.*

Las autorizaciones se otorgarán previa solicitud dirigida al Delegado del área:

Las solicitudes se realizarán anualmente, antes del 1 de diciembre. Las autorizaciones tendrán un año de vigencia: Del 1 de enero al 31 de diciembre. Excepto los autorizados para la venta de productos de temporada.

En la solicitud se hará constar lo siguiente:

- a) Nombre y apellidos del solicitante.
- b) Número de DNI o NIE y CIF.
- c) Domicilio, adjuntando certificado de padrón correspondiente.
- d) Descripción detallada de las instalaciones y de los artículos de venta.
- e) Enumerar las fracciones de residuos asimilables a urbanos que se espera generar de los artículos en venta.

Son residuos asimilables a urbanos: Papel-cartón, envases ligeros, materia orgánica y vidrio.

*Artículo 18.*

Junto a la solicitud a la que se refiere el artículo anterior, el/la peticionario/a deberá aportar los siguientes documentos:

- a) Fotocopias del DNI, NIE y permiso de trabajo por cuenta propia y residencia para extranjeros/as u otra documentación que habilite para residir y trabajar.
- b) Alta y último recibo de ingreso de las cotizaciones de la Seguridad Social.
- c) Alta y último recibo de ingreso del impuesto de Actividades Económicas.
- d) En el caso de productos alimenticios, el carné de manipulador/a de alimentos, así como informe escrito del técnico competente en materia sanitaria, de que dichos productos alimenticios se pueden vender por cumplir las reglamentaciones técnico-sanitarias vigentes.
- e) Documentación acreditativa de la identidad de las personas que pudieran estar autorizadas para ejercer la actividad en nombre del/de la titular.
- f) Fotocopia del recibo Seguro Responsabilidad Civil.

## CAPÍTULO III. Procedimiento

*Artículo 19.*

1. Recibida la solicitud y documentos pertinentes, la Comisión, examinada la documentación aportada, y emitidos, en su caso, los informes preceptivos, procederá a la inclusión de la solicitud en la correspondiente lista de espera.

2. Sistema de adjudicación de puestos:

Primero. Feria.

A) El número, ubicación y clasificación de los puestos a adjudicar en los puestos tradicionales de los jueves de Urbieta kalea se ajustará a la clasificación efectuada mediante decreto del Delegado.

B. Fijada dicha clasificación y adjudicados inicialmente los puestos en licitación, se procederá a la confección de listas de espera

Bi zerrenda osatuko dira: Lehen zerrendan Hernaniko biztanleen erroldan gutxienez bi urteko antzinatasuna dutenak sartuko dira, eta bigarren zerrendan, berriz, gainerako eskaera guztiak. Zerrenda bakoitzeko ordena eskaeran agertzen den sarrera erregistroko zenbakiaren hurrenkeraren arabera izango da.

Itxaron zerrenda bi urtetik behin berrituko da.

C) Salmenta posturen bat hutsik geratzen bada, ordezkapena egiteko hurrengo arau hauen arabera jokatu da:

— Itxaron zerrendan daudenek bakarrik izango dute geratutako hutsunea betetzeko aukera.

— Ez da itxaron zerrendan gutxienezko antzinatasunik eskatuko, eta esleipena gauzatzeko unean itxaron zerrenda agertzen den edozeinek izango du esleipendun izateko aukera.

— Lehenik, Hernanin erroldatutakoek kontsultatu egingo zaie.

Salmenta postuak esleitzeko ezarritako baldintzekin ados dagoela adierazten duen lehenengoari esleitu zaio hutsik dagoen postua.

Adostasuna idatziz aurkeztu beharko da Udaletxeko Sarrera Erregistroan.

— Hernanin erroldatutako zerrendan sartutako arteko inork ere ez badu adostasunik adierazten, gainerako interesatuen zerrendan sartutako artean kontsultatuko da.

Salmenta postuak esleitzeko ezarritako baldintzekin ados dagoela adierazten duen lehenengoari esleitu zaio hutsik dagoen postua. Adostasuna idatziz aurkeztu beharko da Udaltxeko Sarrera Erregistroan.

4. Salmenta postuaren esleipena Zerbitzuetako delegatuaren dekretu bidez erabakiko da. Dekretuan espresuki azalduko da baimenaren titularrak nor den eta baimena ustiatzeko gainerako baldintzak zeintzuk diren.

#### 20. artikulua.

Baimendutako pertsona guztiei identifikazio txartel bana emango zaie eta bertan datu hauek agertuko dira:

— Jabearen eta baimendutako pertsonen, baldin baleude, izen-abizenak.

— Salmenta baimenaren balio epea.

— Baimendutako produktuak.

— Salmenta postuaren zenbakia, maiztasun eta kokapen finkoko azokaren kasuan, eta saltzen aritzeko lekua edo lekuak, egunak eta ordutegia.

— Baimenaren iraungitze-data.

Identifikazioa bistan egon beharko du denbora guztian, salmenta postuko leku ageri batean, eta udaleko agintariak saltzaileari hura erakusteko eskatzen badiote hark erakutsi egin beharko die.

Saltze lanetan postuaren titularrak ez den beste pertsonaren bat ari bada, interesatuari bere identifikazioa eskatu ahal izango zaio, bai eta postua ustiatzeko eta titularrak ez den beste pertsona bat saltzen aritzeko baimenak erakusteko ere.

#### 21. artikulua.

Baimenek zehurtiaz emango dira eta, beraz, udalak kendu ahal izango ditu baldin eta emateko orduan ziren inguruabarrak desagertu direla eta hala egitea egoki jotzen badu, interes publikoaren arrazoiengatik eta Ordenantza hau zein ezargarria den araudia ez betetzeagatik: Horrek ez du inolako kalte-ordain edo konpentsaziorik ekarriko.

Se dispondrá de dos listas: En la primera lista se incluirán los empadronados en Hernani con al menos dos años de antigüedad en el padrón municipal y el resto de solicitudes en la segunda de las listas. La prelación en cada una de las listas se llevará a cabo de acuerdo con el número de registro de entrada de la solicitud.

La lista de espera se renovará cada dos años.

C. Producida una vacante, se procederá a su sustitución de acuerdo con las siguientes reglas:

— Únicamente podrán optar a ella las personas en las listas de espera.

— No se exigirá una antigüedad mínima en dicha lista de espera, y podrá optar a la adjudicación cualquier interesado que figurara en la misma en el momento de llevarse a cabo la adjudicación.

— Se procederá a la consulta de los empadronados en Hernani en un primer lugar.

Resultará adjudicatario del puesto vacante el primero que muestre su conformidad con las condiciones impuestas para la adjudicación del puesto.

Esta conformidad deberá ser presentada por escrito en el registro de entrada de este Ayuntamiento.

— Si ninguno de los incluidos en la lista de los empadronados en Hernani mostrara su conformidad, se procederá a la consulta de los incluidos en la lista del resto de los interesados.

Resultará adjudicatario del puesto vacante el primero que muestre su conformidad con las condiciones impuestas para la adjudicación del puesto. Esta conformidad deberá ser presentada por escrito en el registro de entrada de este Ayuntamiento.

4. La adjudicación del puesto se resolverá mediante decreto del Delegado de Servicios Públicos en el que se indicará de manera expresa el titular de la autorización y demás condiciones de explotación de la misma.

#### Artículo 20.

A todas las personas autorizadas se les proveerá de una tarjeta de identidad en la que constará:

— Nombre y apellidos del/de la titular y de las personas autorizadas, en el caso de que las hubiera.

— Periodo de validez del permiso de venta.

— Productos autorizados.

— Número de puesto en caso de mercado periódico y ubicación fija, y lugar o lugares autorizados para el ejercicio de la actividad, fechas y horarios.

— Fecha de caducidad de la autorización.

Esta identificación estará en todo momento a disposición de la autoridad municipal y se colocará en lugar visible del puesto adjudicado.

En el supuesto de que la venta se realice por particular diferente del titular del puesto, se podrá requerir al interesado su identificación, así como la exhibición de la autorización tanto de la explotación del puesto como del ejercicio de la venta por particular diferente del titular.

#### Artículo 21.

Las autorizaciones tendrán carácter discrecional y por consiguiente podrán ser revocadas por el Ayuntamiento cuando se considere conveniente en atención a la desaparición de las circunstancias que lo motivaron, por razones de interés público y por incumplimiento de este ordenanza, así como de la normativa aplicable, sin que dé origen a indemnización o compensación alguna.

Epe baten beraren barruan ezin izango zaio saltzaile bati kalean saltzen aritzeko baimen bat baino gehiago eman.

#### IV. KAPITULUA. Udal baimenaren ezaugarriak

##### 22. artikulua.

Udalaren baimena pertsonala da eta ezin zaio beste inori utzi. Hala ere, jabearen ezkontideak, seme-alabek, eta enplegatuek ere erabil dezakete, Gizarte Segurantzaren alta emanda egoenez gero. Edozein kasutan ere, baimenaren titularrak ez den beste pertsona batek baimen hori erabili nahi izatekotan, berariaz udalari jakinarazi beharko zaio, eta udalak baimena eman beharko. Edozein unetan eskatu ahala izango zaio identifikazioa.

##### 23. artikulua.

Baimenak gehienez ere urtebeteko indarraldia izango du.

Postuetarako baimen berria lortzeko hainbat dokumentu derrigor aurkeztu behar zaizkio udal agintaritzari. Horretarako azken eguna azaroaren 30a izango da.

Udalak egiaztatu beharko du bai eskatzaileak bai saltzeko produktuek lege baldintza eta betebeharrak betetzen ote dituen eta, hala bada, baimena beste urtebeterako berrituko dio.

Lehentasun eskubide hori egokituko zaie baimenaren titularreri beren baimenaren iraungitze momentuan eta aipatutako baimen horri atxikitako salmenta postuari bakarrik eta eskusiboki dagokiola.

Aipatu diren lege baldintza eta betebeharrak betetzen ez badira edo emandako epearen barruan errekeritutako dokumentazioa aurkezten ez bada, baimena baliogabetuta eta eraginik gabe geratuko da eta, araudi honetan ezarritako prozeduraren arabera, postu hori beste norbaiti esleituko zaio.

##### 24. artikulua.

Hernaniko asteroko ferian saltzen aritzeko udalari lizentzia eskatu behar zaio. Eta horretarako honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

— Alkate-lehendakariari zuzendutako eskabidea, erregistroan sarrera emanda.

— NANaren fotokopia

— Lizentzia fiskalaren fotokopia, indarrean dagoen ekitaldikoa, eta saldu nahi diren salgaien epigrafekoa.

— Gizarte Segurantzaren alta emanda dagoela justifikatzen duen agiriaren fotokopia.

— Osasun gida behar duten janariak saltzeko, osasun baimenaren fotokopia ere bai.

— Atzerritarren kasuan, beste hau ere egiaztatu beharko dute: Hemen bizitzeko eta beren kontura lan egiteko baimenak badituztela, indarrean dagoen legeriak eskatzen dituenak beteta.

— Udaleko tasak ordainduak izatea.

En ningún caso podrá concederse a una persona dentro del mismo período anual, más de una autorización para el ejercicio de la venta.

#### CAPÍTULO IV. Características de la autorización municipal

##### Artículo 22

La autorización municipal será personal e intransferible. No obstante, podrán hacer uso de ella el/la cónyuge, l@s hijos/as y l@s empleados/as del/de la titular dados de alta en la Seguridad Social. En todo caso, el ejercicio efectivo de la autorización por particular distinto del titular de la misma requiere expreso conocimiento y autorización municipal, pudiendo en todo momento ser requerida la correspondiente identificación.

##### Artículo 23.

La autorización tendrá un período de vigencia máxima de 1 año.

Para obtener una nueva licencia en los puestos, deberá presentar ante la autoridad municipal los documentos preceptivos para la autorización dentro del plazo que se determine al efecto. El último día para ello será el 30 de noviembre.

El Ayuntamiento procederá a la verificación del cumplimiento de los requisitos reales tanto del solicitante como del producto a vender y renovará, en su caso, la autorización por un periodo de un año.

Este derecho de preferencia corresponderá a los titulares de la autorización en el momento de su caducidad y referido única y exclusivamente al puesto concreto vinculado a dicha autorización.

En el supuesto incumplimiento de dichos requisitos legales o no presentación de la documentación requerida en el plazo establecido, la autorización quedará sin efecto, procediéndose a su adjudicación de acuerdo con el procedimiento establecido en el presente reglamento.

##### Artículo 24.

Para poder realizar la actividad de venta en la Feria Semanal de Hernani, deberá solicitarse la preceptiva licencia municipal, para lo cual será precisa la entrega de la siguiente documentación:

— Instancia dirigida al Sr. Alcalde-Presidente, debidamente registrada.

— Fotocopia del D.N.I.

— Fotocopia de la Licencia Fiscal que debe pertenecer al ejercicio vigente y corresponder al epígrafe de la licencia a la mercancía que pretenda vender,

— Fotocopia justificativa de estar dado de alta en la Seguridad Social.

— Para la venta de productos alimenticios que precisen de guía sanitaria, deberá presentarse fotocopia del correspondiente permiso sanitario.

— En el caso de extranjeros, deberá acreditar, además, estar en posesión de los correspondientes permisos de residencia y trabajo por cuenta propia, habiendo cumplido los requisitos exigidos por la legislación vigente.

— Estar al corriente de las tasas municipales.

## IV. IDAZPURUA

## DEBEKUAK, BAIMEN-ETETEA ETA TRAMITAZIOAK

## 25. artikulua.

Erabat debekaturik dago feria egiteko erabakita dagoen gunetik kanpo saltzen ibiltzea.

## 26. artikulua.

Debekaturik dago bakoitzak bere postutik kanpo bere merkantziak hedatzea, eta publikoarentzako pasabidea eragozte. Debekaturik dago, halaber, leku horietan kartoiak edo hondakinak uztea.

## 27. artikulua.

Erabat debekaturik dago ferian haragi freskoa nahiz izoztua saltzea. Arraina saltzea ere debekatua dago, edonola dagoela ere, arrain gazitua izan ezik.

## 28. artikulua.

Debekaturik dago publizitatea egitea, hau da, produktuak ikusteko moduan jarrita eta ahozko erakarpenaren bidez lortzen dena bai, baina horretaz aparte bestelako publizitaterik ez. Beraz, ezin da megafonia bidezko sistemarik edo musika aparatuerik erabili.

## 29. artikulua.

Ferian esparruan ezin da ibilgailurik utzi, salbu eta araudi honen 5. artikuluan aipatzen direnak.

## 30. artikulua.

Erabat debekaturik dago hirugarren bati salmenta postua lagatzea udalal horretarako baimenik eman ez badu.

## 31. artikulua.

Baimena baliorik gabe gelditu daiteke baldin eta delegatuak, batzordeak proposaturik, hala erabakitzen badu. Hona hemen erabaki hori hartzeko gertatu beharrekoak:

1. Baimenaren jabeak lizentzia bere borondatez uztea (udalari idatziz jakinarazi beharko dio).
2. Postua beste norbaiti azpierreantatzea edo uztea.
3. Baimenean jasotako alorrekoak ez diren produktuak saltzea.
4. Tasak ez ordaintzea, arrazoi justifikaturik gabe. Hiruhileko bat arrazoi justifikaturik gabe ordaindu gabe uzten bada lizentzia, besterik gabe, baliogabetu egingo da.
5. Salmentaren ondorioz sortzen diren hiri hondakinekiko asimilagarriak diren hondakinak ordenantza honen 36. artikuluan jasota datorren moduan ez kudeatzea.
6. Urtebetean lau astetan segidan edo bost txanda aldizkatuta ferian ez azaltzea, arrazoi justifikaturik gabe.
7. Araudi honetan ezarritako debekuren bat ez betetzea.
8. Zerbitzu batzordeak larrizat jotzen duen beste edozein gauza egitea, egindako hori baimena kentzeko nahiko arrazoi dela jotzen badu.
9. Udaltzaingoari menik ez egitea.
10. Esleipendunek araudi honetan xedatutakoaren arabera dauzkaten obligazioak behin baino gehiagotan ez betetzea.

## TITULO IV

## PROHIBICIONES, SUSPENSIONES DE LICENCIAS Y TRAMITACIÓN

## Artículo 25.

Queda totalmente prohibida la venta ambulante fuera del recinto de la Feria establecido al efecto.

## Artículo 26.

Queda prohibido extender las mercancías y soportes utilizados fuera de la demarcación de cada puesto, ni interceptar el paso de las zonas destinadas al público, debiendo éstas hallarse siempre expeditadas para el tránsito. Asimismo, queda prohibido depositar cartones o desperdicios en dichas zonas.

## Artículo 27.

Queda totalmente prohibida la venta en la Feria de carne fresca, y congelada, así como pescado en todas sus variantes, a excepción del pescado en salazón.

## Artículo 28.

Queda prohibida toda forma de publicidad fuera de lo habitual, (es decir; a excepción de la exposición de productos y el reclamo oral), no permitiéndose, por tanto, sistemas megafónicos ni aparatos de música de ningún tipo.

## Artículo 29.

No podrán ubicarse dentro del recinto de la Feria vehículos de ninguna clase, excepto los señalados en el art. 5.º del presente Reglamento.

## Artículo 30.

Queda totalmente prohibida la cesión del puesto a terceros, sin previa autorización Municipal.

## Artículo 31.

La Licencia podrá quedar sin efecto por resolución del Sr. Delegado, a propuesta de la Comisión, cuando se produzca alguna de las causas siguientes:

1. Cese voluntario del titular de la Licencia, quien lo comunicará por escrito al Ayuntamiento.
2. Subarriendo o cesión del puesto a terceros.
3. Venta de artículos de ramo distinto al consignado en la licencia.
4. No realizar el pago de las tasas, sin causa justificada. La falta de pago de un trimestre sin causa justificada, determinará de forma automática la revocación de la licencia.
5. No gestionar los residuos asimilables a urbanos, generados como consecuencia de actividad, conforme lo dispuesto en el art. 36 de la presente Ordenanza.
6. Falta de asistencia a cuatro Ferias seguidas o cinco alternas, en un período anual, sin causa justificada.
7. Incurrir en cualquiera de las prohibiciones establecidas en el presente Reglamento.
8. Cualquier otra causa que la Comisión considere de tal gravedad que justifique el cese de la referida Licencia.
9. Desacato al Agente de la Policía Municipal.
10. Incumplimiento reiterado de cualquiera de las obligaciones que correspondan a los/adjudicatarios/as, con arreglo a lo dispuesto en el presente Reglamento.

*32. artikulua.*

Batzordeak araudi honetan tipifikaturiko edozein kasuren berri jakiterakoan alkate jaunari proposatuko dio emandako baimena zuhurtziaz indargabe dezala, harik eta egindako arau hausteaz aztertzen eta horrengatik dagokion zigorra proposatzen den arte.

Salaketan azaldutako arazoari buruzko irizpena eman ahal izateko, batzordeak interesatuari entzunaldia emango dio, hark bere alde bidezko jotzen dituenak esateko aukera izan dezan.

Interesatuari entzun ondoren eta egindako salaketa eta gaiaren inguruko txostenak ikusita, Batzordeak erabakiko du ea baimena behin betiko ala behin-behingo eteten den. Etendura interesatuari jakinarazi eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Baimena eteteko erabakiaren aurka berraztertzeko errekurtsioa jartzeko aukera dago. Errekurtsioa delegatuari bidali behar zaio, etendura jakinarazi eta hilabeteko epean. Errekurtsioan argi eta garbi adierazi behar dira norberaren aldeko arrazoiak eta errekurritutako erabakiaren kontrakoak.

#### IV KAPITULUA. FERIAREN ZAINTZA ETA TASEN ORDAINKETA

*33. artikulua.*

Udaltzaingoa arduratuko da asteroko feria zaintzeaz eta araudi honetan ezarritakoa betetzen dela ikuskatzeaz.

Udaltzainek postuetan saltzen ari direnak udal baimenik badaukaten ala ez daukaten egiaztatu ahal izango dute eta, horretarako, baimen-agiria eskatu ahal izango diete. Bestalde, postuak, bai kokapenari bai eta hartzen duten azalerari dagokionez, lizentzian ezarritakoarekin bat ote datozen ere egiaztatu ahal izango dute.

*34. artikulua.*

Tasen ordainketa hiru hilero egingo da, alde zurretik, hiru-hilekoa hasi baino zortzi egun lehenago.

Kuotak ordaindu eta gero agiri bat egingo da eta agiri horretan salmenta postuaren zenbakia eta balio-epea adieraziko dira. Agiri hori izango da udaltzainei erakutsi beharko zaiena hala egiteko eskatzen badute.

*35. artikulua.*

Udaltzainei saltzaileen zerrenda emango zaie, ferien kontrola behar bezala egin dezaten. Zerrendan saltzaile bakoitzaren kuota eta modalitatea azalduko da, postua eta saltzaileak identifikatzearen.

#### V. KAPITULUA. SALTZAILEEN BETEBEHARRAK

*36. artikulua.*

Hona hemen saltzaileen betebeharrak:

1. Esleitutako salmenta postuaz 15 eguneko apean jabetzea.
2. Salgaiei aplikatu beharreko osasun arloko xedapenak eta bestelako xedapen espezifikoak betetzea.
3. Udaltzainen esana betetzea.
4. Erosleak errespetuz tratatzea.
5. Zigorgarri diren merkataritza-operazioak ez egitea.

*Artículo 32.*

La Comisión, una vez tenga conocimiento de cualquier caso tipificado en este Reglamento, propondrá al Sr. Delegado la suspensión cautelar de la Licencia concedida, mientras estudia y propone la sanción a aplicar por la infracción cometida.

Con el fin de poder dictaminar sobre el asunto expuesto en la denuncia, la Comisión podrá dar audiencia al interesado, para que manifieste en su descargo los motivos que estime oportunos.

Oído el interesado y a la vista de la denuncia practicada, así como de los informes recabados, la Comisión procederá a dictaminar sobre la suspensión definitiva o provisional de la Licencia, entrando en vigor dicha suspensión al día siguiente de la notificación al interesado.

Contra el acuerdo de suspensión de licencia, cabrá Recurso de Reposición ante el Delegado, en el plazo de un mes a partir de la notificación de la suspensión. En dicho Recurso se expondrán claramente las razones que asistan y su discrepancia debidamente motivada, por la resolución recurrida.

#### CAPITULO IV. DE LA VIGILANCIA DE LA FERIA Y DEL PAGO DE LAS TASAS

*Artículo 33.*

La vigilancia de la Feria Semanal estará encomendada a la Policía Municipal, quien inspeccionará ésta y velará por el estricto cumplimiento del presente Reglamento.

Los agentes Municipales podrán comprobar, si los ocupantes de los puestos están o no en posesión de la correspondiente Licencia Municipal, requiriéndole al efecto la exhibición de la misma. Asimismo, podrán comprobar si los puestos, tanto en lo referente a su emplazamiento como a la superficie ocupada, se ajustan o no a la licencia.

*Artículo 34.*

El pago de las tasas se realizará por trimestres adelantados, abonándose durante los ocho días anteriores al trimestre.

Una vez abonadas las cuotas, se extenderá un justificante en el que se indicará el número de puesto, así como el período de validez, el cual será exhibido a los Agentes Municipales siempre y cuando éstos lo requieran.

*Artículo 35.*

Con el fin de poder llevar el control de la Feria por los Agentes Municipales, se les proveerá de una relación de los vendedores que hubieren satisfecho la cuota en cualquiera de sus modalidades, con el fin de que puedan identificar puesto y vendedor.

#### CAPITULO V. DE LAS OBLIGACIONES DE LOS VENDEDORES

*Artículo 36.*

Los vendedores estarán obligados a:

1. Tomar posesión del puesto adjudicado, en el plazo de 15 días.
2. Cumplimentar cuantas disposiciones sanitarias y reglamentarias específicas aplicables al tipo de productos destinados a la venta.
3. Obedecer a los requerimientos de la Guardia Municipal.
4. Guardar el debido respeto al público.
5. No realizar operaciones comerciales punibles.



6. Feriaren esparruan sesiorik, eztabaidarik, istilurik edo iskanbilarik ez sortzea.

7. Udal tasak ordaintzea.

8. Agintari eskudunek agintzen dituzten osasun ikuskaritzak egitea.

9. Salmentaren ondorioz sortzen diren hiri hondakinekiko asimilagarriak diren hondakinak ordenantza honen 36. artikuluan jasota datorren moduan kudeatzea eta, salmenta bukatu ondoren, hartutako espazio guztia txukun eta garbi uztea.

#### 37. artikulua.

Espaloietan, hormetan, zuhaitzetan edo edozein eratako instalazioetan kalteren bat eragiten duen edozein saltzailek inolako aitzakia edo zuribiderik gabe ordaindu beharko du konponketa-zenbatekoa. Horretarako 15 eguneko epea izango du eta, hala egiten ez badu, dagokion isuna ordainduko du.

#### 38. artikulua.

Udalak postuen %10 garaiko produktuen salmentarako esleitzeko aukera dauka.

### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Hernaniko Udalerriko Asteroko Feriaren Araudi Hau indarrean sartzen den unetik aurrera baliorik gabe geratuko dira aurreko araudia, 1988koa, eta asteroko feriarekin loturik dauden gainerako xedapen guztiak.

### AZKEN XEDAPENAK

*Lehena:* Araudi honek Hernaniko asteroko feriarekin zer ikusirik duen edozein pertsona edo erakunderengan izango du eragina, bakoitzari dagokionaren arabera.

*Bigarrena:* Araudi honetan xedaturik ez dagoenerako Merkataritza-jarduera antolatzeke maiatzaren 19ko 8/1983 Legeak ezartzen duena hartuko da kontuan, bai eta lege hori garatze aldera emandako gainerako xedapenak eta Udalak nahiz erakunde eskumendunek gai honi buruz hartzen dituzten erabakiak ere.

*Hirugarrena:* Araudi hau 2013ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

6. No provocar altercados, discusiones, escándalos o disturbios de cualquier índole dentro del recinto de la Feria.

7. Abonar las Tasas Municipales.

8. Someterse a las inspecciones sanitarias que se determinen por la autoridad competente

9. Gestionar los residuos, asimilables a urbanos, generados en la venta conforme a lo dispuesto en el art. 36 de la presente Ordenanza y dejar en perfectas condiciones de limpieza la zona ocupada, una vez finalizadas las ventas

#### Artículo 37.

Todo aquel vendedor/a que cause algún deterioro en las aceras, árboles o en cualquier tipo de instalación, deberá abonar sin pretexto ni disculpa en un plazo máximo de quince días el importe de la reparación, haciéndose responsable en caso contrario, de las sanciones a que haya lugar.

#### Artículo 38.

El Ayuntamiento se reserva la facultad de adjudicar un 10% de puestos, para la venta de productos de temporada.

### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

La entrada en vigor del presente Reglamento de la Feria Semanal de Hernani, anulará el Reglamento anterior, del año 1988 y cuantas disposiciones existan al respecto sobre desarrollo y control de la Feria Semanal.

### DISPOSICIONES FINALES

*Primera:* El Presente Reglamento afectará a cualquier persona o entidad que tenga alguna relación con la Feria Semanal de Hernani, en cuanto a las actividades propias de la misma.

*Segunda:* En lo no dispuesto por el presente Reglamento, se estará a lo que establece la Ley 8/1983, de 19 de mayo, de «Ordenación de la Actividad Comercial», y demás disposiciones que le desarrollen, así como las resoluciones que en esta materia dicte el Ayuntamiento y los Organismos competentes.

*Tercera:* El presente Reglamento entrará en vigor el 1 de enero de 2013.